

## **346/2013 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2013ko apirilaren 17koa**

### **Europako gizarte-ekintzailtzako funtsei buruzkoa (EEEren esparruan erabiltzeko testua) <sup>(1)</sup>**

#### **I. KAPITULUA**

##### **HELBURUA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

###### **1. artikulua.**

Erregelamendu honek Batasunean onargarriak diren Europako gizarte-ekintzailtzako funtsak merkaturatzerakoan «EGEF» izendapena erabili nahi duten eta barne-merkatuak ongi funtziona dezan lagundu nahi duten inbertsio kolektiboko erakundeetako kudeatzaileei aplikatzeko betekizun eta baldintza bateratuak ezartzen ditu.

Halaber, Erregelamendu honek honako hauek ezartzen ditu: inbertitzaileek Batasun osoan onargarriak diren Europako gizarte-ekintzailtzako funtsak merkaturatzeko arau bateratuak, Europako gizarte-ekintzailtzako funtsen zorroaren osaera, inbertsio-tresna eta -teknika onargarriak eta Batasun osoan onargarriak diren Europako gizarte-ekintzailtzako funtsak merkaturatzen dituzten kudeatzaileen antolaketa, portaera eta gardentasuna.

###### **2. artikulua.**

1. Erregelamendu hau baldintza hauek betetzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeen kudeatzaileei aplikatu behar zaie (inbertsio kolektiboko erakundeak zer diren 3. artikuluko 1. ataleko a) idatz-zatian dago zehaztuta):
  - a) kudeatzen dituzten aktiboek, guztira, ez gainditzea 2011/61/EE Zuzentarauko 3. artikuluko 2. ataleko b) idatz-zatian adierazitako muga;
  - b) Batasunean kokatuta egotea;
  - c) jatorrizko estatu kidean eskumena duten agintaritzen aurrean erregistratzeko betebeharra edukitzea, 2011/61/EE Zuzentarauko 3. artikuluko 3. ataleko a) idatz-zatiaren arabera, eta
  - d) betiere, Europako gizarte-ekintzailtzako funtsen zorroak kudeatzea.
2. Erregelamendu honetako 3.etik 6.era arteko artikulua, 10. artikulua, 13. artikulua, 14. artikuluko 1. ataleko d), e) eta f) idatz-zatiak, 15 bis-etik 20.era arteko artikulua, 21. artikuluko 3. ataleko bigarren paragrafoa eta 22.etik 22 bis-era arteko artikulua aplikatuko zaizkie 2011/61/EE Zuzentarauko 6. artikuluari jarraikiz baimendutako inbertsio kolektiboko erakundeen kudeatzaileei, baldin eta gizarte-ekintzailtzako funts onargarriak kudeatzen badituzte eta funts horiek Batasunean merkaturatzerakoan «EGEF» izendapena erabili nahi badute.

*(1) Testu hau dokumentazio-tresna bat baino ez da, ez du eragin juridikorik. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du testuaren erantzukizunik bere gain hartzen. Egin beharreko ekintzen benetako bertsioak, beren atarikoak barne, dagokion aldizkari ofizialean argitaratutakoak dira.*



3. Orobat, 15. artikulua araberan erregistratuta dauden Europako gizarte-ekintzailetzako funtsen kudeatzaileek balio higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde (BHIKE) jakin batzuk kudea ditzakete, 2009/65/EE Zuzentarauari jarraikiz baimena lortuz gero.

### 3. artikulua.

1. Hona hemen Erregelamendu honetako kontzeptu nagusien esanahia:
  - a) «inbertsio kolektiboko erakundeak»: OIFak, 2006/61/EE Zuzentarauak 4. artikuluko 1. ataleko a) idatz-zatian ezartzen duen definizioa betetzen dutenak;
  - b) «Europako gizarte-ekintzaileko funts onargarriak»: baldintza hauek betetzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeak:
    - i) kapital-ekarpenen eta eskatu gabeko hitzemandako kapitalaren agregatu osoaren % 70, gutxienez, inbertsio onargarriak diren aktiboetan inbertitzeko asmoa izatea, erregelamenduan edo eraketa-agirietan ezarritako epean;
    - ii) inoiz ez erabiltzea kapital-ekarpenen eta eskatu gabeko hitzemandako kapitalaren agregatu osoaren % 30 baino gehiago inbertsio onargarriak ez diren aktiboak erosteko;
    - iii) estatu kide baten lurraldean kokatua egotea;
  - c) «Europako gizarte-ekintzaileko funts onargarrien kudeatzaileak»: ohiko jardueratzat gutxienez Europako gizarte-ekintzaileko funts onargarri bat kudeatzea duten pertsona juridikoak;
  - d) «zorroko enpresa onargarriak»: baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:
    - i) Europako gizarte-ekintzailetzako funtsak inbertsioa egindako egunean, merkatu arautu batean edo negozio-sistema aldeaniztun (NSA) batean negoziatzea ez onartzea, 2004/39/EE Zuzentzarauko 4. artikuluko 1. ataleko 14. eta 15. puntuetan zehaztutako definizioaren arabera;
    - ii) funtsezko helburua gizarte-eragin positibo eta kuantifikagarria lortzea izatea, enpresaren eraketa-eskritura, estatutu edo beste edozein erregelamendu edo eraketa-agiriren arabera, baldin eta enpresak:
      - gizarte-etekin handiko zerbitzu edo ondasunak eskaintzen baditu,
      - ondasun edo zerbitzuak ekoizteko erabiltzen duen metodoa enpresaren gizarte-helburuaren adierazgarri bada, edo
      - laguntza finantzarioa gizarte-enpresei bakarrik ematen badie, lehen bi murrizketetan zehaztutako moduan;
    - iii) mozkinak funtsezko gizarte-helburua lortzeko erabiltzea nagusiki, enpresaren eraketa-eskritura, estatutu edo beste edozein erregelamendu edo eraketa-agiriren arabera. Erregelamendu edo eraketa-agiri horiek akziodun eta jabeei mozkinak banatzeko egoera guztiak arautzen dituzten prozedura eta arauak zehaztu behar dituzte, ziurtatzeko mozkinen banaketa horrek ez duela enpresaren funtsezko helburua kaltetzen;
    - iv) enpresa modu arduratsu eta gardenean kudeatzea eta, horretarako, bereziki, langileek, bezeroek eta enpresaren jarduerak eragindako interesdunek parte har dezaten sustatzea;



- v) estatu kide baten lurraldean edo hirugarren herrialde batean kokatua egotea, baldin eta herrialde horrek baldintza hauek betetzen baditu:
- kapitalen zuritzeaz eta terrorismoaren finantziazioaz arduratzen den finantza-ekintzako taldeak lankidetzan jarduten ez duten herrialde eta lurraldeen gainean egin duen zerrendan ez egotea;
  - hitzarmen bana izatea Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kudeatzailearen jatorrizko estatu kidearekin eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren partaidetza edo akzioak merkaturatuko diren estatu kideekin; hori, ziurtatzeko, batetik, hirugarren herrialdeak Errentaren eta ELGAREN Ondarearen gaineko Zerga Hitzarmeneko Ereduaren 26. artikuluan ezarritako aginduak erabat betetzen dituela; eta bestetik, elkarri zerga-informazioa modu eraginkorrean ematea zaintzen duela. Hala badagokio, zerga-hitzarmen aldeanitzunak ere eduki behar ditu.
- e) «inbertsio onargarriak»: tresna hauetako edozein:
- i) baldintza hauek betetzen dituzten kapital- edo kuasikapital-tresnak:
    - zorroko enpresa onargarri batek jaulki eta enpresari Europako gizarte-ekintzaitzako funts batek zuzenean erosi izana, edo
    - zorroko enpresa onargarri batek jaulki izana, enpresa horrek jaulkitako partaidetza-balio baten truke, edo
    - haren eskumendeko den zorroko enpresa onargarri batean gehiengo partaidetza duen enpresa batek jaulki izana eta Europako gizarte-ekintzaitzako funtsak eskuratu izana zorroko enpresa onargarriak jaulkitako kapital-tresna baten truke;
  - ii) titulu bihurtutako edo titulu bihurtu gabeko zor-tresna bat, zorroko enpresa onargarri batek jaulkia;
  - iii) Europako gizarte-ekintzaitzako beste funts baten edo batzuen partaidetza edo akzioak, baldin eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts horiek ez badute kapital-ekarpenen eta eskatu gabeko hitzemandako kapitalaren agregatu osoaren % 10 baino gehiago inbertitu Europako gizarte-ekintzaitzako beste funts onargarri batzuetan;
  - iv) Europako gizarte-ekintzaitzako funts batek zorroko enpresa onargarri bati emandako mailegu bermatu eta bermatu gabeak;
  - v) zorroko enpresa onargarrietako beste edozein partaidetza-mota;
- f) «halabeharreko kostuak»: zuzenean edo zeharka inbertitzaileen konturakoak diren eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kudeatzaileak eta haren inbertitzaileek adostu dituzten komisio, karga eta gastu guztiak;
- g) «kapitala»: enpresa baten jabetzan dauden interesak, zorroko enpresa onargarriak bere inbertitzaileek parte har dezaten jaulkitako akzioekin edo beste partaidetza-mota batzuekin ordezkatuak;
- h) «kuasikapitala»: kapitala eta zorra konbinatzen dituen edozein finantza-tresna mota, baldin eta errentagarritasuna zorroko enpresa onargarriaren emaitzei lotua badago eta, porrot eginez gero, tresna itzultzea erabat ziurtatua ez badago;



- i) «merkaturatzea»: Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaile batek kudeatzen duen Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarri bateko partaidetza edo akzioak zuzenean edo zeharka eskaintzea, haren kontura, helbidea edo egoitza soziala Batasunean duten inbertitzaileei;
- j) «hitzemandako kapitala»: konpromiso bat, zeinaren arabera inbertitzaile batek Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarri batean interesak eskuratzera edo kapital-ekarpenak egitera behartua dagoen, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarri horren erregelamenduan edo eraketa-agirietan ezarritako epean;
- k) «jatorrizko estatu kidea»: gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren kudeatzaileak egoitza soziala duen estatu kidea;
- l) «harrerako estatu kidea»: Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileak Erregelamendu honen arabera Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriak merkaturatzen dituen estatu kidea, jatorrizkoa ez beste bat;
- m) «agintaritza eskuduna»:
  - i) Erregelamendu honetako 2. artikuluko 1. atalean aipaturiko kudeatzaileei dagokienez, 2011/61/EE Zuzentarauko 3. artikuluko 3. ataleko a) idatz-zatian aipaturiko agintaritza eskuduna;
  - ii) Erregelamendu honetako 2. artikuluko 2. atalean aipaturiko kudeatzaileei dagokienez, 2011/61/EE Zuzentarauko 7. artikuluko 1. ataleko a) idatz-zatian aipaturiko agintaritza eskuduna;
  - iii) arrisku-kapitaleko funts onargarriei dagokienez, arrisku-kapitaleko funts onargarri hori kokatuta dagoen estatu kideko agintaritza eskuduna;
- n) «harrerako estatu kideko agintaritza eskuduna»: arrisku-kapitaleko funts onargarria merkaturatzen den estatu kideko agintaritza, jatorrizko estatu kidekoa ez beste bat.

Lehen paragrafoko c) idatz-zatiari dagokionez, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren forma juridikoak barne-kudeaketa ahalbidetzen badu eta funtsaren gobernu-organoak kanpo-kudeatzailea izendatzen ez badu, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarria bera erregistratuko da Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren kudeatzaile gisa, 15. artikuluen arabera. Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien barne-kudeatzaile gisa erregistratutako Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriak ezin dira erregistratu inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuen Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kanpo-kudeatzaile gisa.

- 2. Batzordeak eskumena du egintza eskuordetuak onartzeko, 26. artikuluen arabera, baldin eta egintza horietan gizarte-helburua duten zerbitzu- edo ondasun-motak eta zerbitzuak edo ondasunak ekoizteko metodoak zehazten badira, artikuluko 1. ataleko d) idatz-zatiko ii) puntuaren arabera; horretarako, aintzat hartuko dituzte zorroko enpresa onargarri motak eta jabeei eta inbertitzaileei mozkinak banatu ahal izateko egoerak.



## II. KAPITULUA

### «EGEF» IZENDAPENA ERABILTZEKO BALDINTZAK

#### 4. artikulua.

Kapitulu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek «EGEF» izendapena erabiltzeko eskubidea izango dute Batasunean Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriak merkaturatzen dituztenean.

#### 5. artikulua.

1. Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek ziurtatuko dute inbertsio onargarriez aparteko aktiboak eskuratzeko Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriko kapital-ekarpenen eta eskatu gabeko hitzemandako kapitalaren agregatu osoaren % 30 baino gehiago ez erabiltzea. % 30eko muga hori kalkulatu da halaberharreko kostu guztiak kendu ondoren inbertitu daitezkeen zenbatekoak oinarri hartuta; eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak ez dira kontuan hartuko muga hori kalkulatzeko, eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak ez direlako inbertsioztat hartu behar.
2. Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek ezingo dute erabili, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrian, funtsaren esposizioa hitzemandako kapitalaren mailaren gainetik igotzea eragin dezakeen beste metodorik, ez eskudirua edo balioak maileguan hartuz, ez deribatuetakozko posizioen bitartez, ez beste edozein bitarteko erabiliz.
3. Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek maileguak egin, zor-obligazioak jaulki edo bermeak eman ditzakete, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren mailan, mailegu, zor-obligazio edo berme horiek eskatu gabeko konpromisoekin estalita badaude.

#### 6. artikulua.

1. Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien akzio eta partaidetzak merkaturatuko dizkiete, soilik, 2004/39/EE Zuzentarauko II. eranskineko I. atalaren arabera bezero profesionalak diren inbertitzaileei, Zuzentarau horretako II. eranskineko II. atalaren arabera bezero profesional gisa trata daitezkeen inbertitzaileei, edo beste inbertitzaile batzuei, baldintza hauek betetzen dituztenean:
  - a) inbertitzaile horiek gutxienez 100 000 EUR inbertitzeko konpromisoa hartzea, eta
  - b) inbertitzaile horiek idatziz adieraztea, inbertsioa egiteko konpromisoari dagokion kontratuaz aparteko agiri batean, badakitela aurreikusitako konpromisoak zer arrisku dituen.
2. Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaile baten kudeaketan parte hartzen duten exekutibo, zuzendari edo langileek egindako inbertsioei ez zaie 1. atala aplikatuko, baldin eta inbertsioak kudeatzen dituzten Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrietan egiten badituzte.

#### 7. artikulua.

Kudeatzen dituzten Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriei dagokienez, hauek dira Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileen betekizunak:

- a) zintzo eta leial jardutea, eta trebezia, arduraz eta arretaz aritzea;



- b) politika eta prozedura egokiak aplikatzea, inbertitzaileen eta zorroko enpresa onargarrien interesei kalte egin diezaikeen jardunbide desegokiak eragozteko;
- c) inbertsioa egindako zorroko enpresa onargarrien gizarte-eragin positiboa sustatzeko jardutea eta, horretarako, kudeatzen dituzten Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien interesen, funts horietan inbertitu dutenen eta merkatuaren segurtasunaren alde egitea;
- d) zorroko enpresa onargarrietan egindako inbertsioak eta enpresa horien gizarte-eragin positiboa aukeratu eta etengabe ikuskatzerakoan arreta handiz jardutea;
- e) inbertsioak egindako zorroko enpresa onargarriak egoki ezagutzea eta ulertzea;
- f) inbertitzaileak zuzen tratatzea;
- g) inbertitzaileek lehentasunezko trataturik ez jasotzea ziurtatzea, salbu lehentasunezko tratu hori Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren erregelamenduan edo eraketa-agirietan zehaztuta badago.

## **8. artikulua.**

1. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek hirugarrenei zereginak eskuordetzen badizkiete, kudeatzaileek Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien eta funts horietako inbertitzaileen aurrean erantzule izaten jarraituko dute. Gainera, kudeatzaileek ez dituzte zereginak eskuordetuko Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileat ez jo ahal izateraino eta itxurazko erakunde huts bihurtzeraino.
2. Zereginak eskuordetzeak ez du kaltetu behar Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileen ikuskapenaren eraginkortasuna eta, bereziki, ez du eragotzi behar kudeatzaile horiek Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak inbertitzaileen interesen alde kudeatzea.

## **9. artikulua.**

1. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek interes-gatazkak antzeman eta eragotziko dituzte eta, eragozterik ez badute, kudeatu, kontrolatu eta, 4. atalari jarraikiz, ezagutzera emango dituzte berehala, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien eta funts horietako inbertitzaileen interesak ez kaltetzeko eta kudeatzen dituzten Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriek tratu zuzena dutela ziurtatzeko.
2. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek honako hauen artean sor daitezkeen interes-gatazkak antzemango dituzte, bereziki:
  - a) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak, kudeatzaile horien jarduera zuzentzen duten pertsonak, kudeatzaile horiek zuzenean edo zeharka kontrolatzen dituzten langile edo pertsonak eta kudeatzaile horiek edo inbertitzaileek kudeatzen duten Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarria;
  - b) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bat edo funts horretako inbertitzaileak eta kudeatzaile berak edo inbertitzaileek kudeatzen duten Europako gizarte-ekintzaitzako beste funts onargarri bat;
  - c) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bat edo funts horretako inbertitzaileak eta kudeatzaile berak edo inbertitzaileek kudeatzen duten inbertsio kolektiboko erakunde edo BHIKE bat.



3. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek, 1. eta 2. ataletan ezarritako baldintzak betetze aldera, administrazio- eta antolaketa-neurri eraginkorrak aplikatu eta mantenduko dituzte.
4. 1. atalean zehaztutako interes-gatazkak ezagutzera emango dira baldin eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak interes-gatazkak antzeman, eragotzi, kudeatu eta kontrolatzeko hartu dituen antolaketa-neurriak nahikoa ez badira inbertitzaileen interesak kaltetzeko arriskuak prebenitzea segurtasunez ziurtatzeko. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek argi eta garbi azalduko diete inbertitzaileei, haien kontura jardun aurretik, zer interes-gatazka dauden eta zeintzuk diren gatazka horien iturriak.
5. Batzordeak, 26. artikulua araberan, eskumena du honako hauek zehazten dituzten egintza eskuordetuak onartzeko:
  - a) artikulua honetako 2. atalean aipaturiko interes-gatazka motak;
  - b) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek egituren eta administrazio- eta antolaketa-prozeduren alorretan hartuko dituzten neurriak interes-gatazkak antzeman, prebenitu, kudeatu, kontrolatu eta ezagutzera emateko.

#### **10. artikulua.**

1. Kudeatzen duten Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bakoitzari dagokionez, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek prozedurak ezarriko dituzte neurtzeko Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak inbertsioak egiten dituen zorroko enpresa onargarriek zenbateraino lortzen duten hitzemandako gizarte-eragin positiboa. Kudeatzaileek zainduko dute prozedura horiek argiak eta gardenak izatea eta adierazleak edukitzea; adierazleek, zorroko enpresa onargarriaren gizarte-helburu eta izaeraren arabera, gai hauetakoren bat edo gehiago barne har ditzakete:
  - a) enplegua eta lan-merkatua;
  - b) lanaren kalitatearen inguruko arau eta eskubideak;
  - c) talde jakin batzuen gizarteratzea eta babesa,
  - d) tratua eta aukera berdinak, diskriminaziorik eza;
  - e) osasun eta segurtasun publikoa;
  - f) gizarte-babeseko, osasuneko eta hezkuntzako sistemen irisgarritasuna eta horietan duen eragina.
2. Batzordeak, 26. artikulua araberan, eskumena du artikulua honetako 1. atalean zorroko enpresa onargarrien gainean ezarritako prozeduren xehetasunak zehazten dituzten egintza eskuordetuak onartzeko.

#### **11. artikulua.**

1. Betiere, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek berezko funts nahikoa edukiko dituzte eta giza baliabide eta baliabide tekniko egoki eta aproposak erabiliko dituzte Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak behar bezala kudeatzeko.
2. Hala barne-kudeaketako Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriek nola Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kanpo-kudeatzaileek 50 000 EUROko hasierako kapitala izango dute.



3. Berezko funtsak, beti, kudeatzaileak aurreko urtean hartutako gastu finko orokorren zortzirena izango dira, gutxienez. Jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak betekizun hori moldatu egin dezake, baldin eta kudeatzailearen negozioak aurreko urtetik asko aldatu badira. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek, jarduera-urtea osatu ez badute, berezko funtsak negozio-planean aurreikusitako gastu finko orokorren zortzirena izango dira, non eta jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak plan hori aldatzea eskatzen ez duen.
4. Kudeatzaileak kudeatzen dituen Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien balioa 250 000 000 EUR baino handiagoa bada, kudeatzaileak berezko funtsen zenbateko osagarri bat jarriko du. Zenbateko osagarri hori Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien balio osoaren eta 250 000 000 EUR horien arteko aldearen % 0,02 izango da.
5. Jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileei baimena eman diezaike 4. atalean aipaturiko berezko funtsen zenbateko osagarriaren % 50, gehienez, ez jartzeko, baldin eta kudeatzaileek kreditu-erakunde edo aseguru-enpresa batek emandako zenbateko bereko bermeren bat badute; erakunde edo enpresa horrek, betiere, egoitza soziala estatu kide batean eduki behar du edo, bestela, jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunaren iritzi Batasunaren Zuzenbideak ezarritakoen baliokide diren zuhurtzia-arauak dituen hirugarren herrialde batean.
6. Berezko funtsak aktibo likidoetan edo epe motzera eskudiru erraz bihur daitezkeen aktiboetan inbertituko dituzte eta ez dute posizio espekulatiborik edukiko.

## **12. artikulua.**

1. Aktiboak baloratzeari buruzko arauak Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien erregelamenduan edo eraketa-agirietan ezarriko dira eta balorazio-prozedura sendoa eta gardena izatea ziurtatuko dute.
2. Erabiltzen diren balorazio-prozedurek ziurtatuko dute gutxienez urtean behin aktiboak egoki baloratzea eta haien balioa kalkulatzeko.
3. Zorroko enpresa onargarriak modu koherentean baloratze aldera, BMEAk enpresa horietako inbertsioak tratatzeko printzipio bateratuak zehazteko jarraibideak ezarriko ditu, funtsezko helburua kontuan hartuta, alegia: gizarte-eragin positibo eta neurgarriak lortzea eta mozkinak, funtsean, eragin horiek lortzeko erabiltzea.

## **13. artikulua.**

1. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek kudeatzen duten Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bakoitzaren urteko txostenak egingo dituzte eta jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunaren eskura jarriko dituzte, ekitaldia itxi eta gehienez sei hilabetera. Txostenak deskribatu behar ditu, batetik, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriko zorroaren osaera; eta bestetik, aurreko ekitaldiko jarduerak. Halaber, txostenak Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren indarraldiaren amaierako mozkinak argitaratu behar ditu eta, hala badagokio, baita aldi horretan banatutako mozkinak ere. Orobat, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kontu ikuskatuak eman behar ditu ezagutzera. Urteko txostenak informazioaren inguruan indarrean dauden arauen eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kudeatzaileak eta inbertitzaileak adostutako baldintzen arabera egin behar dira. Inbertitzaileek eskatuz gero, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak urteko txostena emango die. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak eta inbertitzaileak elkarri informazio osagarria ematea adostu dezakete.
2. Hau da urteko txostenaren gutxieneko edukia:





- a) inbertsio-politikaren bitartez lorturiko gizarte-emaiza orokorrari buruzko xehetasunak eta emaitza hori neurtzeko erabilitako metodoa;
  - b) zorroko enpresa onargarrietan egindako desinbertsioei buruzko adierazpena;
  - c) zorroko enpresa onargarrietan inbertitu gabeko Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriko aktiboei dagokienez, desinbertsioak egin direnaren gaineko azalpenak, 14. artikuluko 1. ataleko f) idatz-zatian jasotako irizpideen arabera;
  - d) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren kudeatzaileak gauzatutako jardueren laburpena, 14. artikuluko 1. ataleko l) idatz-zatian jasotakoaren arabera;
  - e) 5. artikuluko 1. atalean aipaturiko inbertsio onargarriez aparteko inbertsioen izaera, balio eta xedeari buruzko informazioa;
  - f) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren inbertsio-estrategian ingurumen-eta klima-arriskuak aintzat hartzeko moduaren deskribapena.
3. Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarria gutxienez urtean behin ikuskatuko da. Ikuskapenak egiaztatuko du, batetik, dirua eta aktiboak funtsaren izenean daudela; eta bestetik, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren kudeatzaileak Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriko diruaren eta aktiboen eta inbertitzaileen gaineko agindu eta kontrolen egikaritzea egoki erregistratu eta kontrolatu duela.
  4. Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek, nahitaez, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien urteko finantza-txostena argitaratu behar badute (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/109/EE Zuzentaraua, 2004ko abenduaren 15ekoa, merkatu erregulatu batean negoziatzeko onartzen diren balioak dauzkaten jaulkitzaileei buruzko informazioari dagokion gardentasun-betekizunaren bateratzeari buruzkoa <sup>(1)</sup>, 4. artikulua), artikulua honetako 1. eta 2. ataletako informazioa bereiz edo urteko finantza-txostenari gehituta eman daiteke.
  5. Jatorrizko estatuko agintaritzaren eskudunak artikulua honi jarraikiz bildutako informazio guztia honako hauen eskura jarriko du, dagokien epean eta 23. artikuluan zehazturiko prozedura medio: Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarri bakoitzaren agintaritzaren eskuduna, harrerako estatu kide bakoitzeko agintaritzaren eskuduna eta BMEA.

#### 14. artikulua

1. Inbertsioen gaineko erabakiak hartu aurretik, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek kudeatzen dituzten Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien gaineko gai hauen berri emango diete inbertitzaileei, argi eta garbi eta ongi ulertzeko moduan:
  - a) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren kudeatzailearen eta Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren kudeatzaileak funtsa kudeatzeko kontratatutako zerbitzu-hornitzaileen nortasuna, dagozkien betekizunak deskribatuta;
  - b) kudeatzaileak Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriak egoki kudeatzeko behar dituen giza baliabide eta baliabide teknikoak mantentzeko dauzkan berezko funtsen zenbatekoa;
  - c) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriaren inbertsio-estrategia eta -helburuen deskribapena, gai hauek zehaztuko dituen:

(1) [EO L 390, 2004.12.31koa, 38. or.](#)



- i) zer zorroko enpresa onargarri motan inbertitzeko asmoa duen,
  - ii) Europako gizarte-ekintzaitzako bestelako zer funts onargarritan inbertitzeko asmoa duen,
  - iii) aurreko ii) puntuan aipaturiko Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriek zer zorroko enpresa onargarri motan inbertitzeko asmoa duten,
  - iv) zer inbertsio ez onargarri egiteko asmoa duen,
  - v) zer teknika erabiliko dituen, eta
  - vi) zer inbertsio-murrizketa aplikatu behar dituen, hala badagokio;
- d) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren inbertsio-politikarekin zer gizarte-eragin positibo lortu nahi dituzten eta, hala badagokio, eragin horrek zentzuzko zer proiektio dituen eta aurrez arlo horretan zer emaitza izan dituen;
- e) gizarte-eragina neurtzeko zer metodologia erabiliko dituzten;
- f) zorroko enpresa onargarrietakoez aparteko aktiboen deskribapena eta aktibo horiek aukeratzeko prozedura eta irizpideak, salbu eskudirua edo baliabide likido baliokideak badira;
- g) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren arriskuaren eta inbertsioak egin ditzakeen aktiboek edo erabil ditzakeen inbertsio-teknikei atxikitako arriskuen profilaren deskribapena;
- h) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarria baloratzeko prozeduraren, aktiboak baloratzeko erabiliko den prezioak zehazteko metodologiaren eta zorroko enpresa onargarriak baloratzeko erabilitako metodoen deskribapena;
- i) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kudeatzailearen ordainsaria nola kalkulatu den;
- j) halabeharreko kostuen deskribapena, zenbateko maximoa adierazita;
- k) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren finantza-emaitza historikoak, informazio hori edukiz gero;
- l) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak inbertitzen duen zorroko enpresa onargarriak eta haien eragiketak errazago garatu eta hazte aldera, hirugarrenen bitartez eman edo antolatutako enpresentzako laguntza-zerbitzu eta gainerako laguntza-jarduerak, eta, horrelako zerbitzu eta jarduerarik ez edukiz gero, zergatien azalpena;
- m) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak inbertsio-estrategia edo -politika, edo biak, aldatzeko dauzkan prozeduren deskribapena.
2. 1. ataleko informazio guztia inpartziala, argia eta ez engainagarria izango da. Aldian-aldian eguneratu eta berraztertuko da, dagokionean.
3. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek funtsaren gaineko liburuxka argitaratu behar badute nahitaez (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/71/EE Zuzentaraua, 2003ko azaroaren 4koa, eskaintza publikoak eginez edo balioak



kotizatzea onartuz gero argitaratu behar den liburuxkari buruzkoa (1); artikulua honetako 1. atalean aipaturiko informazioa eman daiteke bereiz edo liburuxkaren parte bezala.

4. Batzordeak, 26. artikulua araberaz, eskumena du honako hauek zehazten dituzten egintza eskuordetuak onartzeko:
  - a) artikulua honetako 1. ataleko c) eta f) artetako idatz-zatietan eta l) idatz-zatian adierazitako informazioaren edukia;
  - b) artikulua honetako 1. ataleko c) eta f) artetako idatz-zatietan eta l) idatz-zatian adierazitako informazioa alderagarritasuna ahalik eta gehien ziurtatzeko modu bateratuan nola aurkez daitekeen.

### III. KAPITULUA

#### IKUSKAPEN ETA LANKIDETZA ADMINISTRATIBOA

##### 15. artikulua

1. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak kudeatzeko «EGEF» izendapena erabili nahi duten Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek asmo horren jakinaren gainean jarriko dute jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskuduna eta, halaber, informazio hau emango diote:
  - a) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeaketa-jarduerak zuzentzen duten pertsonen nortasuna,
  - b) merkaturatzeko partaidetza eta akzioak dituzten Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien izena eta inbertsio-estrategiak,
  - c) II. kapituluko baldintzak betetzeko hartutako neurriei buruzko informazioa,
  - d) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak zer estatu kidean merkaturatu nahi dituen.
2. Jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskudunak Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak erregistratuko ditu, soilik, baldintza hauek betetzen dituztelako uste osoa badu:
  - a) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeaketa-jarduerak zuzentzen dituzten pertsonak zintzoak izatea eta eskarmentu nahikoa edukitzea Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek aplikatzen dituzten inbertsio-estrategietan,
  - b) 1. atalean eskatzen den informazio guztia ematea,
  - c) 1. ataleko c) idatz-zatiaren arabera ezagutzera emandako neurriak II. kapituluko betekizunak betetzeko egokiak izatea.
3. Artikulua honetan jasotako erregistroa Batasunaren lurralde osoan baliozkoa izango da eta, hari esker, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek Batasun osoan merkaturatu ahal izango dituzte Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak «EGEF» izendapenarekin.

(1) EO L 345, 2003-12-31koa, 64. or.



4. Jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak jakinaraziko dio 1. atalean aipaturiko kudeatzaileari Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kudeatzaile gisa erregistratu duten ala ez, atal horretan aipaturiko informazioa eman eta, gehienez, bi hilabetera.
5. Artikulu honen arabera egindako erregistroak, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeaketari dagokionez, 2011/61/EE Zuzentarauko 3. artikuluko 3. atalaren eraginetarako ere erregistrotzat hartuko dira.
6. Artikulu honetan aipaturiko Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunari jakinaraziko dizkio artikulu honen arabera egindako hasierako erregistroko kondizioen aldaketa garrantzitsuak, aldaketa horiek burutu baino lehen.

Jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak lehen paragrafoko aldaketak murriztea edo baztertea erabakitzen badu, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kudeatzaileari jakinaraziko dio, aldaketa horien jakinarazpena jaso eta, gehienez, hilabetean. Agintaritza eskudunak epe hori beste hilabete batez luza dezake, egoera berezia delako ezinbestekotzat jotzen badu, betiere Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kudeatzailea jakinaren gainean jarri ondoren. Aldaketak aplikatu daitezke agintaritza eskuduna dagokion ebaluazio-epetan kontra agertzen ez bada.

7. Artikulu hau beti berdin aplikatzea ziurtatze aldera, BMEAk erregulazio-arau teknikoaren proiektuak egin ditzake, erregistratzea eskatzerakoan agintaritza eskudunei zer informazio eman behar zaien zehatzago azaltzeko, 1. atalean jasotako moduan, eta 2. atalean ezarritako baldintzak zehazteko.

Erregelamendu hau osatzeko ahalordea Batzordeak du eskuordetua, eta atal honetako lehen paragrafoko erregulazio-arau teknikoak ezarritik osatu ahal izango du, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 10.etik 14.era arteko artikuluen arabera.

8. Artikulu hau beti berdin aplikatzea ziurtatze aldera, BMEAk egikaritze-arau teknikoaren proiektuak egin ahal izango ditu; batetik, 1. atalean aipaturiko erregistro-eskarian agintaritza eskudunei informazioa emateko aurkeztu beharreko formulario, eredu eta prozedurei buruzkoak; eta bestetik, 2. atalean adierazitako baldintzei buruzkoak.

Atal honetako lehen paragrafoan aipaturiko egikaritze-arau teknikoak ezartzeko eskumena Batzordeak du, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 15. artikuluen arabera.

9. BMEAk parekoen arteko ebaluazioak egingo ditu, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 30. artikuluen arabera, agintaritza eskudunek Erregelamendu honi jarraikiz aplikaturiko erregistro-prozedurak koherenteagoak izan daitezzen.

#### **15 bis artikulua.**

1. 2011/61/EE Zuzentarauko 6. artikuluari jarraikiz baimenduriko inbertsio kolektiboko erakundeek kudeatzaileek «EGEF» izendapenarekin merkaturatu nahi dituzten Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak erregistratzea eskatuko dute.
2. 1. atalean aipaturiko erregistro-eskaria Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren agintaritza eskudunari egin behar zaio eta honako hau eduki behar du:
  - a) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren erregelamendua edo eraketa-agiriak,
  - b) gordailuzainaren nortasunari buruzko informazioa,
  - c) 1. ataleko 15. artikuluan aipaturiko informazioa,



- d) 1. atalean aipaturiko kudeatzaileek Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak dauzkaten edo ezartzeko asmoa duten estatu kideen zerrenda.

Lehen paragrafoko c) idatz-zatian jasotakoaren ondorioetarako, II. kapituluko baldintzak betetzeko hartutako neurriei buruzko informazioa honako hauetan jasotakoa betetzeko hartutako neurriei buruzkoa izango da: 5., 6. eta 10. artikulua, 13. artikuluko 2. atala eta 14. artikuluko 1. ataleko d), e) eta f) idatz-zatiak.

3. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri baten agintaritzaren eskuduna eta jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskuduna desberdinak badira, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren agintaritzaren eskudunak jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskudunari galdetuko dio Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarria kudeatzaileak ordezko inbertsio-funtsak kudeatzeko daukan baimenaren aplikazio-esparruan dagoen eta 15. artikuluko 1. ataleko a) idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen dituen.

Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren agintaritzaren eskudunak, halaber, 2. atalean aipaturiko dokumentazioari buruzko informazioa eta argibideak eska diezazkioke jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskudunari.

Jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskudunak hilabeteko epea du erantzuteko, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren agintaritzaren eskudunak eskaria jasotako egunetik kontatzen hasita.

4. 1. atalean aipaturiko kudeatzaileei ez dizkiete eskatuko 2011/61/EE Zuzentarauari jarraikiz dagoeneko aurkeztu dituzten informazio edo agiriak.
5. 2. atalaren arabera jasotako dokumentazioa ebaluatu eta 3. atalean aipaturiko informazioa eta argibideak jaso ondoren, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren agintaritzaren eskudunak funtsak gizarte-ekintzaitzako funts onargarri gisa erregistratu ditu, baldin eta funtsen kudeatzaileak 15. artikuluko 2. atalean ezarritako baldintzak betetzen baditu.
6. Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren agintaritzaren eskudunak jakinaraziko dio 1. atalean aipaturiko kudeatzaileari funts hori Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri gisa erregistratu duten ala ez, 2. atalean aipaturiko informazioa aurkeztu eta, gehienez, bi hilabetera.
7. Artikulu honi jarraikiz egindako erregistroa Batasuneko lurralde osoan izango da baliozkoa eta, haren bitartez, funts horiek Batasun osoan merkaturatu ahal izango dira «EGEF» izendapenarekin.
8. Artikulu hau beti berdin aplikatzea ziurtatze aldera, BMEAk erregulazio-arau teknikoaren proiektuak egin ditzake, agintaritzaren eskudunari, 2. atalari jarraikiz, zer informazio eman behar zaien zehazteko.

Erregelamendu hau osatzeko ahalordea Batzordeak du eskuordetua, eta atal honetako lehen paragrafoko erregulazio-arau teknikoak ezarri osatu ahal izango du, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 10.etik 14.era arteko artikuluen arabera.

9. Artikulu hau beti berdin aplikatzea ziurtatze aldera, BMEAk egikaritze-arau teknikoaren proiektuak egin ahal izango ditu, agintaritzaren eskudunari informazioa emateko aurkeztu beharreko formulario, eredu eta prozedurei buruzkoak, 2. atalari jarraikiz.

Atal honetako lehen paragrafoan aipaturiko egikaritze-arau teknikoak ezartzeko eskumena Batzordeak du, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 15. artikuluen arabera.

10. BMEAk parekoen arteko ebaluazioak antolatu eta egingo ditu, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 30. artikuluen arabera, agintaritzaren eskudunak Erregelamendu honi jarraikiz aplikaturiko erregistro-prozedurak koherenteagoak izan daitezzen.



### **15 ter artikulua.**

Estatu kideek zainduko dute, 15. artikuluan aipaturiko kudeatzaileak eta 15 bis artikuluan aipaturiko funtsak erregistratzea ukatzen denean, ezezkoa arrazoitzea, artikuluko horietan aipaturiko kudeatzaileak jakinaren gainean jartzea eta estatuko agintaritza judizial edo administratibo batean edo bestelako agintaritzaren batean helegitea aurkeztu ahal izatea. Helegitea aurkezteko eskubidea aplikatuko da, halaber, kudeatzaileak behar den informazio guztia eman eta bi hilabetera erregistroaren gaineko erabakirik hartu ez bada. Estatu kideek kudeatzaileari eska diezaiokete estatuko legeriaren arabera erreklamazioa aurkezteko dauden aurreko bide administratibo guztiak agortu arte helegitea jartzeko eskubidea ez erabiltzea.

### **16. artikulua.**

Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileek, asmo hauetakoren bat badute, jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunari eman behar diote ezagutzera:

- a) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri berri bat merkaturatzea,
- b) 15. artikuluko 1. ataleko d) idatz-zatiko zerrendan ez dagoen estatu kide bateko Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bat merkaturatzea.

### **17. artikulua.**

1. Jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak harrerako estatu kideko agintaritza eskudunei eta BMEAr berehala emango die ekintza hauen berri: Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaile bat erregistratzea edo erregistrotik kentzea, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bat erregistratzea edo erregistrotik kentzea eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak funts horiek merkaturatu nahi dituen estatu kideen zerrendan estatu bat gehitzea edo kentzea.

Lehen paragrafoaren ondorioetarako, 15 bis artikulua arabera erregistraturiko Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bateko agintaritza eskudunak jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunari, harrerako estatu kideetako agintaritza eskudunei eta BMEAr berehala emango die ekintza hauen berri: gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bat erregistratzea edo erregistrotik kentzea eta gizarte-ekintzaitzako funts onargarri horren kudeatzaileak funts hori merkaturatu nahi duen estatu kideen zerrendan estatu bat gehitzea edo kentzea.

2. Harrerako estatu kideetako agintaritza eskudunek ez diete Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileei funts horiek merkaturatzeko betekizun edo prozedura administratiborik ezarriko eta ez diete merkaturatu aurreko baimenik eskatuko. Betekizun edo prozedura administratibo horiek tasak eta bestelako kargak barne hartzen dituzte.
3. Artikulu hau beti berdin aplikatzea ziurtatze aldera, BMEAk egikaritze-arau teknikoak proiektuak egingo ditu, artikulu honetako jakinarazpenaren formatua zehazteko.
4. BMEAk Batzordeari aurkeztuko dizkio egikaritze-arau teknikoak proiektu horiek, luzeenaz ere 2014ko otsailaren 16an.
5. 3. atalean aipaturiko egikaritze-arau teknikoak ezartzeko eskumena Batzordeak du, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 15. artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera.

### **17 bis artikulua.**

1. Parekoen arteko ebaluazioak 15. artikuluko 9. atalaren eta 15 bis artikuluko 10. atalaren arabera antolatu eta gauzatzeko aldera, jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak edo, desberdina bada, gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren agintaritza eskudunak ziurtatuko du erregistroa egiteko erabilitako azken informazioa (15. artikuluko 1. eta 2.



atalak eta 15 bis artikuluko 2. atala) BMEAren eskura jartzea, modu egokian, erregistroa egin ondoren. Informazio hori 23. artikuluan aipaturiko prozeduraren bitartez egongo da eskura.

2. Artikulu hau beti berdin aplikatzea ziurtatze aldera, BMEAk erregulazio-arau teknikoaren proiektuak egin ditzake, zehazteko 1. atalaren arabera zer informazio jarri behar den haren eskura.

Erregelamendu hau osatzeko ahalordea Batzordeak du eskuordetua, eta atal honetako lehen paragrafoko erregulazio-arau teknikoak ezarri osatu ahal izango du, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 10.etik 14.era arteko artikuluen arabera.

3. Artikulu hau beti berdin aplikatzea ziurtatze aldera, BMEAk egikaritze-arau teknikoaren proiektuak egingo ditu, haren eskura jarri beharreko informazioa aurkezteko formulario, eredu eta prozedurei buruzkoak, 1. atalari jarraikiz.

Atal honetako lehen paragrafoan aipaturiko egikaritze-arau teknikoak ezartzeko eskumena Batzordeak du, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 15. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

#### **18. artikulua.**

1. BMEAk datu-base nagusi bat izango du, zeina internet bidez edonoren eskura egongo den, eta han jasoko ditu «EGEF» izendapena erabiltzen duten gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak, izendapen hori erabiltzen duten gizarte-ekintzaitzako funtsak eta funts horiek merkaturatzen dituzten herrialdeak.
2. BMEAk, bere web-orrian, 3. artikuluko 1. ataleko 1. paragrafoko d) idatz-zatiko v) puntuaren arabera aplikatu beharreko baldintzak betetzen dituzten hirugarren herrialdeei buruzko informazioa emateko estekak edukiko ditu.

#### **19. artikulua.**

1. Jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak Erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla ikuskatuko du.
- 1 bis. 2. artikuluko 2. atalean zehaztutako kudeatzaileei dagokienez, jatorrizko estatu kideko agintaritza eskuduna arduratuko da kudeatzaileak kudeatzen dituen gizarte-ekintzaitzako funts onargarri guztien eraketari eta funtzionamenduari buruzko betekizun eta arauak betetze aldera ezarri dituen neurriak eta antolamendua egokiak direla eta betetzen dituela ikuskatzeaz.
- 1 ter. 2. artikuluko 2. atalean aipaturiko kudeatzaileek kudeatzen dituzten gizarte-ekintzaitzako funts onargarriei dagokienez, gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien agintaritza eskudunak arduratuko dira dagozkien gizarte-ekintzaitzako funts onargarriek 5. eta 6. artikuluetan eta 14. artikuluko 1. ataleko c) eta i) idatz-zatietan ezarritako arauak betetzen dituztela ikuskatzeaz. Gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien agintaritza eskudunak arduratuko dira, halaber, funts horiek dagozkien erregelamenduan edo eraketa-agirietan ezarritako betekizunak betetzen dituztela ikuskatzeaz.
2. Harrerako estatu kideko agintaritza eskudunak irizten badio, arrazoi argi eta frogagarriekin, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak bere lurraldean ez duela Erregelamendu hau betetzen, jatorrizko estatu kideko agintaritza eskuduna jakinaren gainean jarri beharko du berehala, eta agintaritza eskudunak behar diren neurriak hartuko ditu.





3. Jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskudunak neurriak hartu baditu ere edo jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskudunak ez badu zentzuzko epean egin beharrekoa egiten, eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak Erregelamendu honen kontra jarduten jarraitzen badu, harrerako estatu kideko agintaritzaren eskudunak, jatorrizko estatu kideko agintaritzaren eskuduna jakinaren gainean jarri ondoren, inbertitzaileak babesteko behar adina neurri har ditzake, kudeatzaileari Europako gizarte-ekintzaitzako bere funts onargarria harrerako estatu kidearen lurraldean merkaturatzen jarraitzea eragoztearen barne.

## 20. artikulua.

Agintaritzaren eskudunak, estatuko legeriaren arabera, dagozkien zereginak gauzatzeko behar dituzten ikuskapen- eta ikerketa-ahalmen guztiak edukiko dituzte. Bereziki, honako hauek egin ahal izango dituzte:

- a) edozein agiri edonola eskuratzea eskatzea eta agiri horren kopia bat jasotzea edo egitea;
- b) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileari informazioa berandu gabe aurkez dezan eskatzea;
- c) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzailearen edo Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren jarduerekin zerikusia duen edonori buruzko informazioa eskatzea;
- d) ikuskapenak in situ egitea, aurretik abisatuta edo abisatu gabe;
- e) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak Erregelamendu honetako betekizunak betetzen jarraitzen duela ziurtatzeko neurri egokiak hartzea;
- f) errekerimendu bat egitea, ziurtatzeko Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak Erregelamendu honetako betekizunak betetzen dituela eta Erregelamendua berriz ere hausten ez duela ziurtatzeko.

BMEAk parekoen arteko ebaluazioak egingo ditu, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 30. artikulua arabera, agintaritzaren eskudunak Erregelamendu honen arabera dituzten ikuskapen- eta ikerketa-ahalmenei dagozkien prozedurak koherenteagoak izan daitezen.

## 21. artikulua.

1. Estatu kideek erabakiko dute zein zigor eta neurri administratibo ezarri behar diren Erregelamendu honetako xedapenak betetzen ez badira, eta neurri guztiak hartuko dituzte zigorra betetzen dela bermatzeko. Zigor administratiboak eta aurreikusitako gainerako neurriak eraginkorrak, neurritsuak eta disuasiokoak izan behar dute.
2. Estatu kideek Batzordeari eta BMEari eman behar diete 1. atalean aipaturiko arauen berri, luzeenaz ere 2020ko martxoaren 2an. Gerora aldaketak eginez gero ere, Batzordea eta BMEA jakinaren gainean jarri behar dituzte berehalak.
3. 2. artikuluko 1. atalean aipaturiko kudeatzaileek Erregelamendu honetan ezarritakoa beteko dute beti eta Erregelamenduko edozein arau-hausteren erantzule izango dira, baita arau-hauste horietatik eratorritako galera edo kalteen erantzule ere.  
  
2. artikuluko 2. atalean aipaturiko kudeatzaileek 2011/61/EE Zuzentarauan ezarritakoa beteko dute beti. Erregelamendu hau betetzen dela ziurtatzeaz arduratuko dira eta, halaber, 2011/61/EE Zuzentarauaren arabera dagozkien ardurak guztiak beteko dituzte. Kudeatzaile horiek, orobat, Erregelamendu hau haustetik eratorritako galera eta kalte guztien erantzule izango dira.





## 22. artikulua.

1. Agintaritza eskudunak 2. atalean aipaturiko neurriak hartuko ditu, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz, baldin eta gizarte-ekintzaitzako funts onargarriaren kudeatzaileak:
  - a) zorroa osatzeko aplikatu beharreko baldintzak betetzen ez baditu, 5. artikuluan ezarritakoaren kontra;
  - b) Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bateko akzio eta partaidetzak onargarriak ez diren inbertitzaileentzako merkaturatzen baditu, 6. artikuluan ezarritakoaren kontra;
  - c) «EGEF» izendapena erabiltzen badu 15. artikuluan arabera erregistratuta egon gabe edo gizarte-ekintzaitzako funts onargarria 15 bis artikuluan arabera erregistratuta ez badago;
  - d) «EGEF» izendapena erabiltzen badu 3. artikuluko 1. ataleko b) idatz-zatiko iii) puntuaren arabera ezarri gabeko funtsak merkaturatzeko;
  - e) erregistratzea gezurrezko adierazpenen edo bitarteko bidegabekoen bidez lortu badu, 15. artikuluan edo 15 bis artikuluan ezarritakoaren kontra;
  - f) zintzo eta leial, trebeziaz, arduraz eta arretaz jarduten ez badu, 7. artikuluko a) idatz-zatian ezarritakoaren kontra;
  - g) jardunbide desegokiak eragozteko politika eta prozedura egokiak erabiltzen ez baditu, 7. artikuluko b) idatz-zatiaren kontra;
  - h) 13. artikuluan urteko txostenaren gainean ezarritako betekizunak behin eta berriz betetzen ez baditu;
  - i) 14. artikuluari jarraikiz inbertitzaileak jakinaren gainean jartzeko duen betekizuna behin eta berriz betetzen ez badu;
2. 1. ataleko kasuetan, agintaritza eskudunak honela jokatu du, dagokionaren arabera:
  - a) neurriak hartuko ditu, gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak, dagokionaren arabera, 5. eta 6. artikuluetan, 7. artikuluko a) eta b) idatz-zatietan eta 13.etik 15 bis-era bitarteko artikuluetan ezarritakoa betetzen duela ziurtatzeko.
  - b) gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileari «EGEF» izendapena erabiltzea debekatuko dio eta kudeatzaile hori edo dagokion gizarte-ekintzaitzako funts onargarria erregistrotik kenduko du.
3. 1. atalean aipaturiko agintaritza eskudunak, erregistrotik gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaile bat edo gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bat kenduz gero, jakinaren gainean jarriko ditu, berehala, beharrezko agintaritza eskudunak, harrerako edozein estatu kideko agintaritza eskudunak (15. artikuluko 1. ataleko d) idatz-zatiaren arabera) eta BMEA.
4. Batasunean «EGEF» izendapendun gizarte-ekintzaitzako funts onargarri bat edo gehiago merkaturatzeko eskubidea iraungi egingo da agintaritza eskudunak 2. ataleko b) idatz-zatiko erabakia hartu bezain laster.
5. Jatorrizko edo harrerako estatu kideko agintaritza eskudunak, kasua zein den, irizten badio, arrazoi argi eta frogagarriekin, gizarte-ekintzaitzako funts onargarri baten kudeatzaileak 1.



ataleko a) eta i) idatz-zatietan jasotako arau-hausteren bat egin duela, BMEA jakinaren gainean jarriko du berehala.

BMEAk, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz, agintaritza eskudunei aholkuak eman diezazkieke, 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 17. artikulua arabera, haiek artikuluko honetako 2. ataleko neurriak hartzea edo ez hartzea erabaki dezaten.

## **22 bis artikulua.**

Agintaritza eskudunei 2011/61/EE Zuzentarauaren arabera emandako eskumenak, zigorrekin zerikusia dutenak barne, Erregelamendu honetako 2. artikuluko 2. atalean aipaturiko kudeatzaileekin ere erabiliko dira.

## **23. artikulua.**

1. Agintaritza eskudunek eta BMEAk, dagozkien zereginak betetzeko, elkarrekin lan egingo dute, Erregelamendu honen eta 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) arabera.
2. Agintaritza eskudunek eta BMEAk, haien zereginak gauzatzeko aldera, behar adina informazio eta dokumentazio emango diote elkarri, Erregelamendu honen eta 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) arabera, bereziki Erregelamendu honen arau-haustek antzemateko eta konpontzeko.

## **24. artikulua.**

1. Agintaritza eskudunen edo BMEaren zerbitzura dauden edo egon diren pertsonak eta agintaritza horien edo BMEaren aginduetara jarduten duten ikuskari eta adituek lanbide-sekretua gorde beharko dute. Pertsona horiek dagozkien zereginetan jasotzen duten ezkutuko informazioa ezin zaio beste inori eman, ezta agintaritzei ere, salbu laburtuta edo elkartuta, Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileak eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriak banaka ez identifikatu ahal izateko moduan. Horrek ez du esan nahi zenbaitetan Zigor Zuzenbidea eta Erregelamendu honetan araututako prozedurak aplikatu behar ez direnik.
2. Ezin da eragotzi estatu kideetako agintaritza eskudunek edo BMEAk, Erregelamendu honen arabera eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarrien kudeatzaileei eta Europako gizarte-ekintzaitzako funts onargarriari aplikatu beharreko Batasuneko beste xedapen batzuen arabera, elkarri informazioa ematea.
3. Agintaritza eskudunek edo BMEAk ezkutuko informazioa jasotzen badute, 2. atalaren arabera, dagozkien zereginak gauzatzeko bakarrik erabil dezakete, eta betiere prozedura administratibo edo judizialen esparruan.

## **25. artikulua.**

Estatu kideetako agintaritza eskudunak ados jartzen ez badira Erregelamendu honen arabera estatu kide baten baino gehiagoren lankidetzara eta koordinazioa eskatzen duten arloetan agintaritza eskudun batek egindako ebaluazio, ekintza edo huts baten gainean, agintaritza eskudunek gaia BMEara eraman dezakete, eta BMEAk 1095/2010 Erregelamenduko (EB) 19. artikulua arabera daukan eskuduntzen arabera jardun ahal izango du, betiere desadostasun horrek Erregelamendu honetako 3. artikuluko 1. ataleko b) idatz-zatiko i) puntuarekin edo d) idatz-zatiko i) puntuarekin zerikusirik ez badu.



## IV. KAPITULUA

### XEDAPEN IRAGANKORRAK ETA AZKEN XEDAPENAK

#### 26. artikulua.

1. Batzordeak egintza eskuordetuak onartzeko eskumena du, artikuluko honetan ezarritako baldintzekin.
2. Honako hauetan aipaturiko eskumenak lau urtean izango ditu Batzordeak, 2013ko maiatzaren 15etik hasita: 3. artikuluko 2. atala, 9. artikuluko 5. atala, 10. artikuluko 2. atala eta 14. artikuluko 4. atala. Batzordeak eskumenen eskuordetzearen gaineko txostena egingo du, luzeenaz ere lau urteko aldia amaitu baino bederatzi hilabete lehenago. Eskumenen eskuordetze-aldia tazituki luzatuko da, iraunaldi berberarekin, salbu Europako Parlamentuak edo Kontseiluak luzatzearen kontra daudela adierazten badute, luzeenaz ere aldi bakoitza amaitu baino hiru hilabete lehenago.
3. Honako hauetan adierazitako eskumen-eskuordetzea noiznahi baliogabetu dezake Europako Parlamentuak edo Kontseiluak: 3. artikuluko 2. atala, 9. artikuluko 5. atala, 10. artikuluko 2. atala eta 14. artikuluko 4. atala. Baliogabetzea erabakiz gero, erabakian zehaztutako eskumenen eskuordetzea amaitu egingo da. Baliogabetzeak erabakia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean edo erabakian zehaztutako egunean izango du eragina. Erabakiak ez du eraginik izango indarrean dauden egintza eskuordetuetan.
4. Batzordeak egintza eskuordetu bat onartu bezain laster, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinarazi behar dio.
5. 3. artikuluko 2. atalaren, 9. artikuluko 5. atalaren, 10. artikuluko 2. atalaren eta 14. artikuluko 4. atalaren arabera onartutako egintza eskuordetuak indarrean jarriko dira, soilik, baldin eta Europako Parlamentuak edo Kontseiluak eragozpenik jartzen ez badute Europako Parlamentua eta Kontseilua jakinaren gainean jarri eta hiru hilabeteren buruan edo, epe hori amaitu baino lehen, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Batzordeari jakinarazten badiote ez dutela eragozpenik jarriko. Epe hori hiru hilabete luzatuko da, Europako Parlamentuak edo Kontseiluak hala erabakiz gero.

#### 27. artikulua.

1. Batzordeak Erregelamendu hau berrikusiko du, 2. atalaren arabera. Berrikuspenean jaso behar du Erregelamendu honetako arauen funtzionamenduari eta Erregelamendua aplikatuz eskuratutako esperientziari buruzko azterketa orokor bat, zeinak honako hauen berri eman behar duen:
  - a) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek zenbateraino erabili duten «EGEF» izendapena estatu kideetan, hala estatu barruan nola estatutik kanpo;
  - b) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriek egindako inbertsioen banaketa geografiko eta sektoriala;
  - c) informatzeko betekizunak zenbateraino diren egokiak, 14. artikuluen arabera, bereziki zenbateraino diren egokiak inbertitzaileek inbertsioari buruzko erabaki funtsatua hartzeko;
  - d) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriek inbertsio onargarriak nola erabili dituzten eta zer eragin izan duen erabilera horrek Batasun osoko gizarte-enpresen garapenean;
  - e) «gizarte-enpresentzako» bereizgarri europar bat sortzea komeni den;



- f) hirugarren herrialdeetan kokatuta dauden gizarte-ekintzailtzako funts onargarriei «EGEF» izendapena erabiltzeko baimena emateko aukera, hirugarren herrialdeek zerga-arloko gobernantza egokirako arau minimoak aplikatzea sustatzeko neurrien gainean Batzordeak emandako Gomendioa aplikatuz eskuratutako esperientziaren argitan.
  - g) zorroko enpresa onargarriak zehazteko irizpideen aplikazio praktikoa eta aplikazio horrek Batasun osoko gizarte-enpresen garapenean izan dituen eraginak eta gizarte-eragin positiboa;
  - h) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileek zorroko enpresa onargarrien gizarte-eragin positiboa, 10. artikuluan aipaturikoa, neurtzeko ezarri dituzten prozeduren analisia eta Batasunean gizarte-eragina Batasuneko gizarte-politikaren arabera neurtzeko arau bateratuak ezartzeko bideragarritasunaren ebaluazioa;
  - i) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriak txikizkako inbertitzaileentzat ere merkaturatzeko aukera;
  - j) Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarriak aktibo egokietan sartzeari komentzen, 2009/65/EE Zuzentarauaren arabera;
  - k) Erregelamendu hau gordailu-erregimen batekin osatzea komentzen den;
  - l) gizarte-ekintzailtzako funts onargarriek izan ditzaketen zerga-oztopoen azterketa eta Batasunean gizarte-ekintzailtza sustatzeko ezar daitezkeen zerga-pizgarrien ebaluazioa;
  - m) «EGEF» izendapena erabiltzen duten funtsetan inbertitzea eragotzi ahal izan duten oztopoen ebaluazioa, Batasunaren bestelako kautela-arau batzuek inbertitzaile instituzionaletan izan dituzten eraginak barne.
2. 1. atalean aipaturiko berrikuspenera egingo da:
- a) idatz-zati hauei dagokienez, luzeenaz ere 2022ko martxoaren 2an: a) idatz-zatitik e) idatz-zatira eta g) idatz-zatitik m) idatz-zatira; eta
  - b) f) idatz-zatiari dagokionez, luzeenaz ere 2015eko uztailaren 22an.
3. Batzordeak, 1. atalean adierazitako berrikuspenera amaitu eta BMEArri kontsulta egin baino lehen, txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, hala badagokio legegintza-proposamen batekin batera.
4. Batzordeak, berrikuspenerarekin batera, 2011/61/EE Zuzentarauko 69. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, bereziki Zuzentarau horretako 3. artikuluko 2. ataleko b) idatz-zatiaren arabera erregistratutako kudeatzaileei dagokienez, honako hauek aztertuko ditu:
- a) gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeaketa eta esparru juridikoan aldaketak egiteko egokitasuna, kudeaketa-pasaportearen aukera barne; eta
  - b) gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien merkaturatzearen definizioaren egokitasuna eta definizio horrek eta dagozkion interpretazio nazionalak zer eragin duten gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien funtzionamenduan eta bideragarritasunean eta funts horien mugaz gaindiko banaketan.

Berrikuspenera egin ondoren, Batzordeak txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, hala badagokio legegintza-proposamen batekin batera.



## **28. artikulua.**

1. Batzordeak, luzeenaz ere 2017ko uztailaren 22an, Erregelamendu honen eta inbertsio kolektiboko erakundeei eta erakunde horien kudeatzaileei buruzko beste arau batzuen arteko elkarrekintza aztertzen hasi behar du, bereziki Erregelamenduaren eta 2011/61/EE Zuzentarauko arauen artekoa. Azterketa horren helburua Erregelamendu honen aplikazio-eremua zehaztea izango da. Horretarako, datuak bilduko ditu, zehazteko beharrezkoa al den aplikazio-eremua handitzea, gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaileak, kudeatzen dituzten aktibo guztiek batera 2. artikuluko 1. atalean aurreikusitako muga gainditzen badute, Europako gizarte-ekintzailtzako funts onargarrien kudeatzaile bihur daitezzen, Erregelamendu honen arabera.
2. Batzordeak, 1. atalean adierazitako berrikuspena amaitu eta BMEari kontsulta egin baino lehen, txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, hala badagokio legegintza-proposamen batekin batera.

## **29. artikulua.**

Araudi hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeitasei eguneko epean sartuko da indarrean.

2013ko uztailaren 22tik aplikatuko da, salbu 3. artikuluko 2. atala, 9. artikuluko 5. atala, 10. artikuluko 2. atala eta 14. artikuluko 4. atala, horiek 2013ko maiatzaren 15etik aplikatuko baitira.

Araudi hau bete beharrezkoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean.